

...eta kitto!

TOKIKOM

794 zkia. 2012-11-17

ASTEKARIA



Gerrako umeak batu nahian

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



Antonio Murillo
doktorea
PERIODONTZIA
INPLANTOLOGIA
AHO-KIRURGIA

Ainhoa Zulueta
doktorea
ODONTOLOGIA OROKORRA
PROTESIAK
ESTETIKA

Susana Sierra
doktorea
ORTODONTZIA
OKLUSIOA



RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostegunera: 10-14 eta 16-20h / Ostiraletan: 10-14 eta 15-19h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

Gin-Tonic-aren ARTEA



TXURRUT HISEN museoan

ARATOS TEAK

BEEFEATER 24: pomelo gorria, limoia eta perrexila. **BULL-DOG:** ipurua, limoia eta erregaliza. **HENDRICK'S:** pepinoa, limoia eta petalo gorria. **GINMARE:** ipurua, limoia eta olibazukua. **G VINE:** limoia, mahats berdearen carpaccio-a eta jengibre. **TANQUERAY TEN:** sagar berdea eta limoia. **LONDON GIN:** ipurua eta limoia. **CITADELLE. MAGELLAN. MARTIN MILLER'S. K-25** (Amurriokoa, Nerbioiko urarekin egindakoa). **TONIKAK. SCHWEPPE:** Normala, Original Indian eta Botanical Indian. **FEVER TREE.**



Behar den moduko gin-tonic-ak izotz eta tonika onak eskatzen ditu, limoi berde ederrarekin eta, zelan ez, ginebra bikainarekin batera. Horiek dira osagarri egokienak gin-tonic bat prestatzeko.

gin TXURRUT tonic



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maidier Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidier Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

"Imágenes de la Guerra Civil" (EFE)

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

INGIRAU.- Egoera batean nor bere buruarekin konpondu. "Hor konpon! Oiñ heu ingirau hari ahal duan bezela". Lortu. 'Agenciar'. "Sanjuanak hurreratu ziran eta zine modurako makiña bat ingirau eben".

INGURATU.- Hurbildu, hurreratu. "Inguratu be ez jakuz egin".

INGURU.- Gutxi gorabehera. "Hirurogeita hamar urte inguru oiñ harek".

ESKUTITZAK

— OHARRA —

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso behar dira, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarrik onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Energia asko xahutzen da eta ez soilik erabilera txar-
raren ondorioz. Esaterako, Madrilen gauetan eraikin
askoren aurrealdeak argiztatzeko argindar gehiago
kontsumitzen da egun osoan baino, langileak bertan
dauden orduetan baino: horrek argi kutsadura baino
ez du sortzen"

(Alfonso del Val, ingurumen aholkularia)

"Urtarrilean jaiotzea hobe da ikasleen artean. Urtarri-
lean, otsailean edo martxoan jaiotakoan artean,
%15ek errepikatzen dute mailaren bat; urrian, azaro-
an edo abenduan jaiotakoan artean, %25ek. Bigarren
hiruhilabeteen jaiotakoan artean %18k errepikatzen
duen bitartean, hirugarrenekoen artean %22k"


(Garikoitz Goikoetxea, kazetaria)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

asteko

9

datua

salaketa jaso dittue udaltzaiñak, 8 kalia txiza egittiarren eta 1 kartoiak kalia lagatziarren, ordenantza barrixa indarrian dagan 15 egunian. Isunak 150 eta 300 euro bittartekuak dira.

Banderen legia beteko dau Eibarrek

EAE-KO MAPIA OSATZEN DABEN 251 UDALERRIXETATIK AZKEN URTIAN 94k salaketa jaso dabe Estaduko Administraziño Orokorren aurrian, Espaiñiako bandera erakiñ ofizialetan lehentasunezko tokian egon bihar dala ezartzen daben Banderen Legia ez betetziagaittik eta horretako bat Eibar izan da. Gernika, Zierbana, Muskiz, Leioa, Elorrio, Arrasate, Aiala, Azpeitia, Bermeo eta Hernani be salaketa bera jaso daben udalerrixen zerrendan dagoz, beste batzurekin batera. Salaketa gehixenak iazko ekaiñaren 11n udaletxiak osatu ostian jakiñarazi zittuan



Laster Eibar, Euskadi, Espaiña eta Europako banderak ikusiko dittugu. / SILBIA HERNANDEZ

eta beste asko, barriz, urritik abendura bittartian egindako salaketiak dira. Gobernuaren Ordezkaritzak ez dauka Udalen aurka juateko eskumenik, baina badaka horiek justiziaren aurrian salatze ahalmena eta, holan, Estaduaren Abogazia Orokorren bittartez legia

betetzen ez diharduen udalerririk horretako 57ren kontrako errekursuak aurkeztu dittue. Horren barri euki eta alkatiak legia betetze biharrezkuak diran pausuak emon dittu eta laster udaletxe fatxadan Eibar, Euskadi, Espaiña eta Europako banderak ikusiko dittugu.



Lasturreko Goikola basarrixa.

Lasturren ordu batzutan artzai

BASARRI MUNDUA BERTATIK BERTARA EZAGUTU NAHI DABENAK horretarako aukera paregabia izango dau otsailaren 25ian Lasturren abiatuko dan Artzai Txikia-k izeneko esperientziari esker: famelixa osuarendako pentsautako ekimenari esker, eta arduradunen berbetan, "txikixenak, txapela buruan eta makilla eskuan, artzai bihurtuko dira ordu batzutan. Latxa arrazako artaldia ezagutu eta benetako Idiazabal gaztaia zelan egitten dan ikasiko dabe. Ondoren, artisaubillakatu eta ardixen artilliarekin tapi-


za egingo dabe ehun-taillarrian. Amaitzeko, Lasturko errota zaharrian artua ehotu eta famelixa osuak talo-taillarrian parte hartze aukeria izango dau". Urri bittartian hillero jarduera bi egingo dira (egutegixa www.debabarrenaturismo.com webgunian). Urteerik 3 bat orduko iraupena dauka eta umiak 8 euro pagau bihar dittue eta helduak 12 euro. Informaziño gehixagorako edo izena emoteko Debako Turismo Bulegora jo leike (943192452 telefono zenbakixa, turismoa@deba.net helbide elektronikua).

Iparragirreko etxiak martxuan zozketatuko dittue

AURREIKUSITTAKO EPIAK BETETA, IPARRAGIRRE KALIAN EGINGO DIRAN protekziño ofizialeko 42 etxien zozketia martxuaren 9xan egingo dala aurreratu dabe. Zozketia Coliseuan izango da, 11.00etan. Zozketan sartuko diranen behin-betiko zerrendak jendaurrean ipiñitta dagoz Pegoran eta interneten be irakorri leikez, www.eibar.net udalaren webgunian.


Andrendako enplegu taillarra

MARTXUAN ANDRAZKUENDAKO PENTSAUTAKO ENPLEGU TAILLARRA ANTOLATU DABE liburutegixak eta KZguniak. Bestiak beste, Lanbiden lan-eskintzak zelan billatu, harpidetza zelan egiñ, Infojobsen izena emoteko egin biharrekuak, curriculuma zelan sartu eta beste hainbat landuko dittue. Curriculum eta lan alkarriketarako orientabidiak be emongo dittue. Taillarra egun bittan emongo dabe: martxuaren 1ian, 10.00etatik 13.00era eta martxuaren 27xan, 16.00etatik 18.00etara. Izena emoteko liburutegira jua leike, e-maila biblioteca@eibar.net bialdu edo telefonoz deittu (943 70 84 37).



Teknikerreko suak kalte materixalak baiño ez ditte eragin

MARTITZEN ILLUNTZIAN, 19.20-XAK ALDERA SUA PIZTU ZAN TEKNIKERREN. Suhiltzailliak azaldutakuari jarraituta, Otaola Hiribidian fundaziñuak dakan egoitzako laborategixetako batian, laban sortu zan sua eta urtetzen zan keia toxikua izateko zalantzaren aurrian, badaezpada megafonia bittartez Amañako bizilaguneri leihuak ez zabalteko abisua emon zetsen udaltzaiñak. Horrekin batera, Amañako pasialekua itxitta egon zan ixa 21.00ak arte, sua amatatzia lortu eta egoeria bere onera bueltau zan arte. Suak kalte materixalak eragin zittuan bakarrik eta ez zan iñor zauritu.



Laba batian sortutako suak ke morduia eragin eban.

a u t u a n

AHT-REN INGURUKO AURKEZPENA

Gaur 19.00etan Gaztetxian "AHT aurkako mugimendua eta errepresioa" liburuaren presentaziñua egingo dabe eta, jarraixan, afari-merixendia. Ekitaldixa biribiltzeko, Meren kantautoriak kontzertua emongo dau.

IBILGAILUEN ZERGA

Trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga borondatez pagatzeko epia martxuaren 9xan amaittuko da. Domiziliauta daguazun rezibuak egun horretan kargauko dittue eta helbideratu bariko ordainketak, barriz, Kutxa, Lankide Kutxa, Banco Guipuzcoano, Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, Banco Santander eta La Caixan edo internet bidez pagau leikez.



Alfakuak manifestaziñua egin dabe


ZAPATU EGUARDIXAN MANIFESTAZIÑUA EGIÑ EBEN ALFAKO BIHARGIÑAK, Untzagatik hasitta, "Xantaiarik ez! Despidorik ez!" idatzitta zekan pankartiaren atzian. Aurreko astian enpresa batzordeko kidiak azaldutakuaren arabera, enpresako zuzendaritzak soldatak %10 jaisteko proposamena luzatu detse, hori onartu ezian, hainbat bihargin kaleratu biharko dittuela gaiñerata. Horren aurrian protesta egitteko urten ziran zapatuan kalera.

Alfako bihargiñak ez eze, herritar askok egiñ eben bat protestarekin. / SILBIA HERNANDEZ

Udal Artxibuan 1.882 konsulta egin ziran iaz

UDALETXEKO AZKEN PISUAN DAGUAN UDAL ARTXIBUA BIZIRIK DAGUANIK ezin leike ukatu, iazko erabilleraren gaiñeko datueri begiratzuz gero: 2011. urtian 1.882 konsulta, 235 maillegu, 7.912 kopixa eta 193 dokumentu-sarrera dagoz registrauta. Horrez gain, 2000. urtetik hona 30.000 dokumentu baiño gehixago digitalizatu dittue. Artxiboko arduradunak emondako datuen arabera, iaz 571 lagun gerturatu jakuen eta horretxek 1.567 konsulta egin zittuen hainbat udal dokumenturen inguruan, gehixenak udal erabagixekin edo akordixuekin, hirigintza-proiektuekin, obra partikularrekin eta estatistikarekin lotutakuak. Udal barruko ataletan 239 espediente laga zittuen mailleguan. Aldi baterako erakusketetarako, barriz, 6 espediente mailleguan laga zittuen. Horrekin batera, 2011n artxi-

buan 66 instalaziño-unidade sartu ziran (kaja, karpeta, legajo...), Idazkaritzarekin, Antolaketa eta Personal Saillarekin, Kontrataziño Atalarekin eta Alkatetzarekin lotutakuak. Konsulta gehixenak, 1.214, artxibuan bertan egindakuak izan ziran eta kaso gehixenetan eibartarrak jo dabe bertara. Gaiñontzeko kasuetan batez be posta elektronikua erabilli dabe konsultak egitteko.



Ibarkurutzen ura kanalizatzen

ASTE HONETAN HASI DITTUE IBARKURUTZEN, HERRIKO BESTE TOKI BATZUETAN egindakuari jarraituta, uraren kanalizaziñua hobetzen juateko biharrak. Hor inguruan egin biharrekuak amaittu bittartian, beraz, señaizautako kale zatixetan argi ibilli biharko dira automobillak eta oiñezkuak.

Astelehen goizian udalbatzak 2012rako udal aurrekontua onartu eban. Gobernu taldiaren proposamenari jarraituta, PSE-EE eta PP-ko ziñegotzixak alde botau eben (11), Bildukuak kontra (6) eta EAJkuak abstenidu egin ziran (4). 30'5 millioiko presupuestua, azken urtiotako bajuen, krisixari egokittutakua da eta, udal ordezkariaren berbetan, "daukagun euro bakotxa nora doian ondo baiño hobeto pentsatzera" derrigortzen dittu.



PSE-EE eta PP-ko ziñegotzixen aldeko botua jaso eban onartutako aurrekontuak. / SILBIA HERNANDEZ

Aidez aurretik PSE-EE eta PP alderdikak siñatutako egonkortasunerako hitzarmena indarrarian egonda, PP-ko ziñegotzixak presupuestuen aldeko botua emotia ez zan sorpresia izan, bestiak beste aurrekontua osatzeko orduan PP-ren proposamenak kontuan hartu zittuelako eta,

beraz, alderdi bixen artian adostutakua izan zalako. EAJ eta PSE alderdixen arteko alkarrizketetan, barriz, bixak bat egitten daberen proiektuen zerrendiari errepasua emon eta aurten garatzeko hiru puntu nagusixak ziheztu zittuen plenuaren aurretik: lehelengo sei hillebetekuan Errebalen merkataritza

tza gune barrixa jasotzeko proiektua lizitaziñora etartzia, anbulatorixo parian trafikua lurazpittik sartzia, ingurua oiñezkuendako moldatzeko asmurekin eta etorkizunian Matsarixan zer egin leikian aztertzen hastia.

Bildurekin, barriz, "aurrekontuen inguruko adostunik lortzia

eziñezkua" izan dala azaldu dau alkatiak. De los Toyos-en berbetan, "hasteko, eurak planteatzen dittuen zuzenketak gauzatzeko beste partidetatik dirua kentzeko egitten daberen proposamenak ez dittugulako egingarri ikusten. Eta, bestalde, kargu publikuen soldaten gainian murrizketak proposatzen

4'6 millioi inbersiñuetarako



Txaltxa Zelaixan estalitako parkia egittia aurreikusten da.

Aurrekontuak inbersiñueri eskindutako atalian 4'6 millioiko partidia dago eta horren erdixa ospittala jasotzeko Mendiguren y Zarraua-ko orubea erosteko erabiliko dittue. Beste 2'3 millioiak jarraixan aittatzen dittugun hñek egitteko erabiliko dittue: Estaziño kalia oiñezkuendako egokitzia (490.000 euro); irisgarritasun edo akzesibildade planak, Amaña-Otaola pasarelia, Torrekua-Otaola biala bikoiztia eta Juan Antonio Mogelesko eskillara mekanikuak tartian (475.000 euro); Txaltxa Zelaixan estalitako parkia egittia (150.000 euro, iazko aurrekontuan horretarako gordeta eguazen 200.000 eurueri gehitu biharrekuak); hurrengo urtian ekitekuak izango diran proiektuen erredakziñua (300.000 euro); auzetako billeretan eskatutakueri erantzuna emotia (220.000 euro, 120.000 euro bihar txikixak pagatzeko eta 100.000 urgentiak diran beste batzuk pagau ahal izateko); eta enplegua dinamizatze komisiño barrixandako baliabidiak (300.000 euro).



**Aseguru
Artekaritza**

Autoa, Etxebizitza, Istripu eta Bizitza aseguru...
...ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK

Estaziño, 12 - behea Tel. 943-257545 Fax. 943-257546



AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA



Egigurentarren, 18

Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

KRISIXAREN NEURRIRA EGINDAKO PRESUPUESTUA

Aurtengo udal aurrekontua 30.523.164,34 eurokoa izango da, diru-sarrerak eta gastuak orekatuta. Azken urtiotako presupuestuak hartu eta konparatzen hasi ezke-ro, krisixaren eragiña begibistakua da, urtetik urtera presupuestuaren diru kantidadia etenbarik behera egitten jua da-eta: **2009.** urtian **39** millioi eurotik gorako aurrekontua osatu eta onartu zan, **2010.** urtian **34** millioi eurora ailegatzeko estu ibilli ziran eta **iazkua**, barriz, **ixa 32** millioi eurokoa izan zan. Beraz, kontuak etara eta 2009tik hona 10 millioi gitxiagoko dake aurrekontua osatzeko orduan, presupuestuak % 23 inguruko jaitsieria euki dau-eta. Horretarako arrazoen artian, diru-sarreretan emondako jaitsieria goguan hartzeko modukua da. Krisixaren eragiñez murrizketa haundixena jasan daben diru-sarreraria eraikuntzaren sektoriari lotutakua izan da: **Eraikuntza, Instalaziño eta Obra zergan 2010ian 1.400.000 euroko diru-bilketaren aurreikuspena izatetik 2012rako aurreikuspena 350.000 eurokoa izatera pasau da, hau da, %75 gitxiagokua.**

Udaleko bihargiñak protestan

Eibarko Udaleko bihargiñak plenuan murrizketen kontra protesta egiñ eben eta, aretuan zeudeneri berba egitteko txandia aillegatzian, bihargiñen ordezkari batek euren eskaeriak jasotzen ditudan idatzixa irakorri eban. Bestiak beste, "zerbitzu publikuetan zein bihargiñen eskubidietan etenbarik eta krisixaren aitzakixarekin egitten diharduen murrizketak" behiñ eta barriro salatzen diharduela azaldu eban ordezkariak: "Enpresa Batzordiak udalbatzak eta bihargiñen artian siñatutako hitzarmenak diñuana ez dala betetzen salatu dau, soldaten jaitsieria, enplegu publikuaren murrizketia eta Elkarkidetzari emon biharreko kuota instituzionala bertan behera geratzia salatu daben moduan". Gauzak holan, "ez ohiko pleno honetan I. Kapituluua moldatzia eskatzen dogu, udaleko bihargiñen erosteko ahalmena berreskuratu ahal izateko". Bestalde, mobilizaziñuekin jarraitzen dabe eta aste honetan be alkarretartzia egiñ eben udaletxe parian.



Udaleko bihargiñak jasan dituden murrizketak salatu eben plenuan. / SILBIA HERNANDEZ

dittuenian modu demagogikuan diharduelako, iaz holan egin genduala eta, gaiñera, gobernu taldean daguazen eta oposiziño-kuak diran ziñegotzixen artian orekiari eusten detsagula daki-xenian".

Soldaten gaiñeko eztabaida

Hain zuzen be, asteleheneko plenoko debatia azken puntu horren inguruan ibilli zan, hau da, politikuen soldaten gaiñian sortu zan eztabaida haundixena. Izan be, Bilduk arlo horrerri zein beste batzueri

aplikatzeko proposamenak, aurrekontuaren zirriborruari egindako 34 zuzenketa partzialetan jasotakuak, **ixa millioi bat euro gastuetatik aurreratu eta beste kontu batzuetarako erabiltzeko aukeria eskintzen ebela pentsatzen dabe Bilduk eta, hortaz, Igor Aldalur taldeko bozeramailliak alkatiak aurpegiratutakuari erantzunda, "euren planteamientuak kuardratzen dabela" argitu eban, Bilduk "hasieratik arlo politikuen gaiñian izan daben kezka" berretsita. Eta soldaten**

murrizketaren gaiñian eurak esandakuak piztu daben hasarria "ulertu ezinda" segitzen dabela esanda, astelehenian bertan Bilduko ziñegotzixa dan Begoña Vesgak udaleko bere soldatiari uko egin zetsala azaldu zetsen plenuan eguazeneri "Batzar Nagusietatik kobratzen daben soldatiarekin bateraeziña" dala pentsatzen dabelako.

Edozelan be, alderdi sozialistatan ez eze, EAJ-n be gogo txarrez hartu dabe Bilduk soldaten gaiñian esan ditudanak eta, Iñaki Zuloaga bozeramaillien berbetan, "aurrekontuen negoziaziñuakin jardun dogun bittartian politikuak biharrian 3 edo 5 ordu baiño ez ditudugula emoten esatiak mesede gitxi" egitten detse daneri eta holakuak esatia "arduragabekerixa" dala esan eban.

Udaleko bihargiñak ez eze, herrittar gitxi jua ziran pleno aretora, baiña euretako baten erreflexiñuetarako tartia be egon zan: "Eragile kulturala naitzen neurrixan, egixa da baliabidiak zuek kudeatzen dituduzuela, baiña ez dira zeuenak, herrittar guztiona baiño, horregaittik ez dot ulertzen zergaittik edozeiñ ekitaldi antolatzeko zeozeren billa zuengana jotzen dogunian limosna eskatzera goiazela emoten daben. Eta bigarren erreflexiño modura, ez dot pentsatzen iñork zuen (politikuen) biharra desprestigiatzia biharrezkua danik, zuek bakarrik be, planteatzen dituduzuenekin zeuen buruak desprestigiatzen dituduzue-eta".



MANUEL ZALABARDO GORDO

2011ko otsailaren 11n hil zen, 73 urterekin

Senideen izenean, ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera joan eta samin agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.

Irteera meza domekan (19an) izango da, goizeko 11.00etan,
AZITAINGO ANDRA MARI ELIZAN




Asier Serranoren**kolaborazioa****Norbait edo zerbait**

Zigor-gela isolatura jaitsi zuten bi begiak kolore diferentez margotuak zituen presoak, eta gatibu egin zutenetik bertan isuri zituen estreinako negar malkoak. Ordea, ez zegoen funtzionario itzalik inguruan malkoekin bi begiak berdindu ote zitzaizkion kartzela-erakundeen aktetan jasotzeko.

Zigor-gela isolatura jaitsi zuten, pornografia aldizkari zaharkituz eta esperma likatsuz landutako tamaina errealeko giza-buru bat atzeman ziotelako, eta berehalako ihesa prestatzen ari zela uste izan zutelako. Horrelako akatsengatik egiten dute negar presoek: funtzionarioek polizia telesail merke lartxo ikusten dutelako. Inori ez zitzaion otu, adibidez eta zerbait esatearren: ezarritako kondena biharamunean konplitzen zuten bi begiak kolore diferentez margotuak zituen presoaren ziega-kideak, maite zaitut zinezko bat aitortu ziola ohandzearen behealdetik iheskor; eta berak ere, hurrengo hilabeteetan alboan inor eduki ezean, aurpegi bat asmatu beharko zuela norbaiti edo zerbaiti maite zaitut zinezko bat itzultzeko.

musika**Mikel Markez****Hiri hartan izan zen**


Bederatzigarren diskoa du hau Markezek; milaka kontzertu bizkar gainean eta sekulako ilusioa: kantu ederrak, soilak, atseginak sortzen eta kantatzen jarraitzeko. Oso lan beroa eta atsegina burutu du. Grabaketan, besteak beste, Pello Ramirez eta Harkaitz Miner, Erramun Martikorena, Eñaut Elorrieta eta Uxue Alberdi izan ditu lagun.

**Jare****Itxaropenaren ertzean**


Euskaraz kantatutako rockaren patente berria da Jare, mota guztietako musikazaleentzat egokia; Hard rock, pop musika eta rock alternatiboaren artean kokatu beharko genuke talde hau. Esperientzia eta gaztetasuna biak daude proiektu honetan.

Alaa As Awani**Jakobian eraikina**

Nobela errealista, ia errealtetik hurbilegia, kanpoan gelditzen den kontalari batek emana, baina sortutako mundu horretan gaurko Egiptoko gizartea berehala Eraikina bera hantxe dago oraindik — garai batean Suleiman Baxa zeritzon kalean, gaur Talaat Harb, 34an—, nahiz nobelan azaltzen dena ez izan ez garai batean izan zen bezalako ez eta gaur den bezalako ere.


**Luisa Villar****Hilketa Liburutegi Nazionalean**

Detektibeen Eleberrien Lagunen Klubak María Mayo kontratatu du Liburutegi Nazionalean ospatuko diren "Kriminarekin topaketak" jardunaldien berri emateko. Hala ere, saioetako batean hizlarietako baten hilketa ahalegina gertatzen da. Aretoan bertan dagoen komisario bat arduratuko da kasu hau argitzeaz. Baina Mariak ere egingo ditu bere ikerketak.

**literatura**


San Balentin eguna izan zan martitzenian. Batzuk euren bikotiekin ospatu eben, beste batzuk ez. Hori holan ez izateko, halanda be, bikotia topatzeko agentziak ipiñi dira martxan, gehixen bat interneten. Ia holan Cupidok bere lana betetzen daben.

Zelan ikusten dozuz bikotia topatzeko agentziak?



RAMON PROVANZA
44 urte
komertziala

Nahixago dot nere aldetik bikotia lortzia, nik nahi doten moduan moldatuz, holako agentzia batera jotzia baiño. Egixa esan, nere buruari ez detsat sekula be planteatu halako gauzarik.




JULEN MEIRE
17 urte
ikaslia

Agentzia batian baiño, nahixago dot bikotia neure kabuz topatzia. Esan ez desta bape konfidantzarik emoten holako batera jotziak. Ez dakitt, izan leike iñoiz ez naitzela saiatu holako zeozer egitten.


VANESSA MARTÍNEZ
33 urte
ume-zaintzaillia

Hórrek agentzixok ez dira fidagarrixak. Nik nahixago dot gauzak beti egin izan diran moduan egittia. Adibidez, gabaz urten eta jai-giruan zaguazenen ligatzia.



MAIDER ALONSO
35 urte
fisioterapeuta

Nahixago dot beti egiñ izan dan moduan bikotia topatzia. Halako gauzak ez deste bape konfidantzarik emoten, ez naiz fixatzen bikotia topatzen detsun agentzia batekin.





irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Azitain Industrialdea, 3 - H 943 120108

IGELTSERITZA LANAK ETA GREMIOEN KOORDINAKETA

KALITATEZKO OBRAK

Sukaldeak, komunak edo etxe osoak

Teilatuak, impermeabilizazioak, pabilioiak, bulegoak, dendak...



%5^{eko}

DESKONTUA

SUKALDE eta BAINUGELA erreformetan
(IGELTSERITZA lanetan)
maiztaren 31ra arte

EGOITZA NAGUSIA
Bilburieta 20 - beheko eskualdea

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorioa eta Errusketak labea
Egokienan (Signo poligonoan)
Partikelat, matu eta aserun etxei zerbitzua
Koroak - Eskelak - Urteurrenko eskelak
Eskel Hesi osoko ospitaleen hartzak za lugu
Nazioa eta Nazioarteko traskidok

Mugica Ehorzketa
Ehorzketa labea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

TEEN-
AJEA



Gizakiaren lagunik onena ei da txakurra, baina baliteke bien arteko harremana ez izatea hain polita. Sortu ahal diren arazoak konpontzeko eibartar honen laguntza berebizikoa izan daiteke. Orain, Txakurrekin bizitzeko ikastaroa dihardu ematen Zumaian. josu.ac@hotmail.com helbidera idatziz, kontaktatu ahal duzue berarekin.

JOSU ASTIGARRAGA, txakur-hezitzailea:
“Txakurren eta jabeen arteko harremana hobetu daiteke”

- Zer da ‘Txakurrekin bizitzeko’ ikastaroa?

Txakurren eta jabeen arteko harremana hobetzeko helburua dauka. Arlo teorikoan jorratuko genuke, adibidez, txakurrak nola funtzionatzen duen (pertsonengandik ezberdinak dira), txakur-psikologia, txakurraren garapena (gaztetan, junior mailan eta nagusia denean), lege-gintza (jabeen betebeharrak), nondik datozen (etxe-txakurren sustraiak)... Bestetik, mito faltsuak argitzen ditugu eta zer ez den egin behar zehaztu. Gero, alde teoriko hori praktikara eramaten dugu. Intentzioa daukat, gainera, ‘agility’ delakoa antolatuzeko (oztopoak dituen zirkuitua izango zena). Laburbilduz, dena nahiko orokorra da eta ulertzeko erraza.

- Txakurrak hezitu behar dira eta hezitzen jakin, ala ez da beharrezkoa?

Norberak ikusiko du noraino heldu nahi duen, baina gutxieneko bat derrigorrezkoa izan beharko litzateke.

- Mitoak aipatu dituzu lehen. Zeintzuk izango lirateke mito horiek?

Gaur egunean oso hedatuta dagoen mitoa da txakur-arraza batzuk erruduntzat jotzea. “Txakur horiek potentzialki arrisku-tsuak dira” eta halako baieztapenak entzuten dira. Hori guztiz irreal da. Izaerez egin daiteke berba, adibidez txakur batek izaera gogorra duela eta argi ibiltzeko, baina hori ez da arraza jakin batekoa izateagatik izango. Izaera kontua da, ez arraza kontua.

- Nola animatu zinen horrelako ikastaroak ematera?

Zumaiako kultura sailak urtero epe bat jartzen du herriko jendeak nahi duen ikastaroa proposatzeko eta animatu egin nintzen. Udalean gustatu zitzaizen, onartu zuten eta jendea apuntatzen joan zen gero.

- Partikularki ere hezitzen dituzu txakurrak?

Bai, nire bezeroak ere badauzkat. Baten batek deitzen badit txakurrarekin arazoak dituela esanez edo txakurrak kaso egitea nahi duela esanez, horretan laguntzen diot. Txakurren portaera txarrak konpontzeko edo lehen aipatutako ‘agility’-rako ere deitzen didate, adibidez.

Ketesu 2010 *bulego eta kolektibitateko instalazio osoak eta materiala*
altzariak, sofaak, mangelak, liburutegiak...
bulego materiala enpresetan banatzen dugu
 Estazio India, 12
 20000 Eibar
 Tf: 943 22973 / 943 22972
 Fax: 943 22968
 email: info@ketes2010.com

Radio Eibar
 CADENA
SER
104,0 FM

Irudi
LORADENDA
 - Lora eta landare natural eta lehorrak
 - Ezkontzetarako lorak
 San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

“Willkommen” Eibarrera

Ignazio Zuloaga institutuak bisitariak ditu egunotan. Azken bost urteotan gertatu bezala, Alemaniako Balingen Gymnasium eskolako ikasleekin elkartrukea egingo dute eibartarrek, lehenengo euren bisita jaso eta, ondoren, lurralde germaniarrera bidaiatuz.

Zapatu eguerdian Balingeneko 16 eta 17 urte bitarteko 30 germaniarrek eibartarren ‘Willkommen’ (ongi etorri alemanieraz) jaso zuten. Ekintzaz beteriko astea zuten aurrean eta hasieratik etxean bezala sentiarazi nahi izan zien eibartarrek. Horietariko bat Irene Rekalde izan da eta bere ustetan, *“oso ondo dabiltzala ikusi dut, oso esperientzia polita izaten ari dela iruditzen zait”*.

Ikastetxeen elkartrukeetan gertatzen den bezala, bisitariak hemengo ikasleen etxetan geratu dira aste guztian. Horrela, alemanek hemengo familiekin egonaldia egin



eta, ahal den neurrian, hemengo bizimodu eta ohiturak ezagutzeko aukera izan dute.

Ignazio Zuloaga institutua operazio-base bezala egonik, Euskal Herriko hainbat txoko ezagutzeko aukera izan dute alemaniarrek. Bestiak beste, Biarritz, Baiona, Gernika, Lekeitio, Bilbo eta Donostian egon dira. Beraz, ez dute ia atsedenerako denborarik eduki, nahiz eta ez duten eguraldia lagun izan. Turismoaz gain, hala ere, euskal kulturaren gainean ikasteko aukera izan dute (astebeteko egonaldiak uzten duena behintzat).


Alemaniara hilaren 26an

Orain, alemaniari agur esateko ordua iritsi da, baina institutukoek ez dute pena handirik edukiko; izan ere, otsailaren 26ra eurak joango dira Balingenera. Irene Rekaldek dioen bezala, *“joateko gogo handia dut”*. Seguru berdina pentsatzen dutela berarekin joango diren beste ia 30 ikasle eibartarrek.



Alemaniatik etorritakoen eta Institutukoek talde argazkia. / LEIRE ITURBE

Alemaniarrek Eibarren egin bezala, astebeteko egonaldia egingo dute institutukoek Balingenen, hango ikasleen etxetan lo egin ez eta lurralde germaniarreko hainbat toki ezagutzuz. Irenek dioenez, hala ere, oraindik ez dakite zer egingo duten, ez baitakite zein programa jarraituko duten han dauden bitartean. ‘Auf wiedersehen?’ (agur), beraz, alemaniarrei.



AMETS

PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloia
Tel. 675 706 807

ERRETZEARI LAGATZEKO ikastaroa
martxoaren 10ean eta 11n

emailza paregabeekin

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelera,
gaztelaritik euskarara,
eta ingelesez euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

- | | |
|---------------------------|--------------------------------------|
| 1 Kardiologia | 10 Barne Medikuntza |
| 2 Zirugia | 11 Radiologia |
| 3 Dermatologia | 12 Urologia |
| 4 Dietetika eta Nutrizioa | 13 Traumatologia |
| 5 Análisi Klinikoak | 14 Koloproktologia |
| 6 Ortodontzia | 15 Erizaintza |
| 7 Otorrinolaringologia | 16 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa |
| 8 Pediatria | 17 Foto-depilazio Unitatea |
| 9 Psikiatria | |

1936. urtean Gerra Zibila hasi zen Espainian eta askok erbestera jo zuten sarraskitik ihes, tartean umeak. Eibartik ere ahal den moduan kanpora jo zuten gaztetxo askok, eta Ego Ibarra horien izen, datu eta argazkiak batzen dabil azken asteotan. Ikerketan lanean diharduten Enara Garcia eta Carmen Larrañaga zinegotziarekin egon gara berbetan.



ENARA GARCIA / CARMEN LARRAÑAGA:

“Gurasoak inoiz gehiago ikusi ez zituzten umeak joan ziren atzerrira”

- Gerrako Umeen datu eta testigantzak ari zarete jasotzen. Zertan datza ikerketak?

ENARA: Gerra Zibilean Eibartik atzerrira joan ziren umeen gainean ikerketa egiten dihardugu, Errusia, Ingalaterra, Belgika eta Frantziara joan zirenak. Datuak biltzen ari gara: euren izen-abizenak, jaiotze-data, zenbat urterekin joan ziren atzerrira, gurasoen izenak, non bizi ziren, nora joan ziren atzerrira (lurraldea, herria eta, ahal baldin bada, zein ibilbide egin zuten, askotan batetik bestera mugitzen zirelako), ea bueltatu ziren, noiz bueltatu ziren, bizirik jarraitzen duten ala ez, eta abar.

- Zer da orain arte jaso duzuen?

CARMEN: Jende asko etorri da gugana.

ENARA: Joan den ostiralera arte 151 izen geneuzkan, baina asteburuan egunkarian agertu zen berria eta 9 izen gehiago jaso ditugu gaur (elkarrizketa astelehean egin zen), beraz, guztira 164 izen ditugu oraingoz.

- Noiz hasi zineten ikerketarekin?

ENARA: Orain dela hilabete ekin genion ikertzeari.

- Zein adin tartetako umeak ziren erbestera joan zirenak?

CARMEN: 5 eta 12 urte bitarteko umeen berri izan dugu ikerketa hasi dugunean.

ENARA: Eta orain jakin dugu 5 urte baino gutxiagoko umeak ere joan zirela. Txikiak (justu gaur deitu du senitarteko batek) 18 hilabete zituen eta bere anaiarekin joan zen itsasontzian, baina bidaian hil zen. Detalle gogorra da.

CARMEN: Pentsa nola elikatu behar ziren ume biak, anaia handia eta txikia, itsasontzian... hori oso zaila da.

- Noiz amaituko da ikerketa?

ENARA: Hiru hilabeteko lana izatea dago aurrekusa.

CARMEN: Hori da ezarrita dagoena. Enarak lan handia egiten dihardu ikerketan eta ea amaitzen dugun denbora honetan. Behintzat ikerketa eginda lagatzea nahiko genuke.

- Zein da ikerketaren helburua? Libururen bat kaleratzea aurreikusten duzue?



Gerra Zibilean ebakutatutako ume eibartik batzuk Eibarren bildu ziren handik urte batzuetara. Besteak beste, Enrique Astarloa, Eugenio Prieto, Ernesto Larreategi, Ernesto Lizundia, Jose Uribeetxerria eta Agustin Lizundia.

/ SASINKA ASTARLOA RUANO



Esperanza eta M^a Pilar Ortiz de Zarate ahizpak, Ingalaterrara joan zirenak. / LURDES ORTIZ DE ZARATE

CARMEN: Lehenik ikerketa egitea da gure asmoa. Gero, udan gutxi gora behera, Gerrako Umeei omenaldi antzeko bat egitea gustatuko litzaiguke, zerbait polita, izan ere, ume haugariko asko oraindik bizirik dago. Momentuz Enara informazioa jaso eta jaso dabil, argazkiak batzen, izenak, gutunak... Horren gainean lana egin eta gero ikusiko dugu ea zer egin daitekeen.

- Aurretik bazegoen jasota zerbait Gerra Zibileko Eibarko umeen gainean?

ENARA: Ez, lehen aldia da horrelako zerbait egiten dena hemen Eibarren.

CARMEN: Enara da honen gainean ikertzen duen lehena. Argazki asko jasotzen ari gara, eta informazio batek beste baten-gana eramaten gaitu eta horrela gabiltza lanean.

- Urte asko pasa dira Gerra Zibila gertatu zenetik. Zaila da zuek behar duzuen informazioa jasotzea?

CARMEN: Urteetan zehar hainbat gauza galdu egin dira eta jendea ere falta da.



Astarloa Ruano familia Errusiatik bueltan 1956an, "Crimea" itsasontzian.
/ SASINKA ASTARLOA RUANO

ENARA: Horregatik eskatu diogu laguntza jendeari, gugana etorri etortzeko, datu berriak emateko, eta abar. Gerta liteke guk daukagun artxiboko listetan norbait ez agertzea, baina agertu behar zena.


- Nora joan ziren gehienbat ume eibartarrak?

ENARA: Hemendik Errusiara joan ziren gehienak eta oso ondo dokumentatuta daude gainera. Frankok Gerra Zibila irabazi eta ez zuen hartueman diplomatikorik Errusiarekin. Beraz, Stalin hil eta gero (1953an hil zen) etorri ziren ume horiek bueltan.

CARMEN: Nik oroitzen dut nola harrera egin zitzaizen etxera bueltan. Untzagan banku baten gainean egon nintzela gogoratzen dut egun hartan.

- Asko etorri ziren?

ENARA: Bai, izan ere aurretik ez zuten izan baimenik bueltatzeko.



Ingalaterrako espedizioan ume eibartar batek soinean eramane zuten identifikazio kartaia. / LOREA GARATE

IKERKETAREKIN KOLABORATZEKO

egoibarra2@eibar.net

943-708423

Untzaga, 1 - 2. pisuko
Ego-Ibarra bulegoa

- Atzerrira joandako ume hauek zein helmuga zeukaten herrialde haietan: familien etxeetara joan ziren, aterpeetara...?

ENARA: Lurraldeen arabera zen hori. Errusian Umeen Etxeetara joan ziren eta, kasuen arabera, etxe batetik bestera, etxe batean... ibili ziren gero. Ingalaterran kanpamentu batera joan ziren lehenik, uste zutelako 3 hilabeteko egonaldia egingo zutelahan. Gero, ikusi zuten luzatu egingo zela egonaldia, eta beste kanpamentu batzuetara edo etxeetara bidali zituzten. Frantziara joan zirenen kasuan, ikusi dugu familiek hartu zituztela. Eta Belgikara jo zutenak ere familietan egon ziren.

- Nola lortu zuten kanpamentu edo familiek hemendik joandako umeak onartu eta hartzea?

CARMEN: Hemendik joan aurretik oso ondo antolatuta zegoen dena. Errepublikako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak antolatutako zerbait izan zen. Orduan ez zegoen ordenagailurik eta telefonoak ziren bezalakokak ziren, baina harriztekoa da nola antolatu zuten guzti hau.

ENARA: Gertatu zen, bestetik, kasu batzuetan gurasoek gezurra esan zutelaren euren umeen adinean. Nola gehienez 18 urte izan zitezkeen joan ahal izateko, gehiago zituztenei urteak kentzen zizkieten.

- Umeak bakarrik edo gurasoren batekin joan ziren erbestera?

ENARA: Pertsonalarekin: irakasleekin, medikuekin, apaizekin eta batzuetan gurasoren batek ere lagundu ziren, baina oso arraroa zen hori.

- Gertatu zen, beraz, agian inoiz ez gehiago ikustea berriz euren gurasoak.

ENARA: Bai, hala da.

Seigarren urteurrena

IOSU TREBIÑO GARITAONANDIA

2006-II-17an hil zen



"Izan zinelako gara"

Haren aldeko meza **hilaren 18an, zapatuan,** ospatuko da **San Pio X. elizan, arratsaldeko 19.00etan**



Somos Eibar Eskubaloia Lurraldeko 1. mailara igo da

LURRALDEKO 2. MAILAKO LEHENENGO POSTUA ZIURTATUZ, GAINERA, ETA MODU IKUSGARRIAN Talleres Ondo 50-15 egurtuta. Denboraldiaren martxari jarraituz, defentsan serio eta kontraeraso bikainak burutuz, ondo aprobeztatu zuen aukera igoera zale-tuen aurrean ospatzeko. Somos Eibar Eskubaloia Lurraldeko 1. mailan jokatu du hu-


rrengo denboraldian, hortik ere, eta nazional mailetara iritsi arte, igotzeko helburuarekin. Harrobiko talde nagusiei dago-kienez, jubenilen Tekniker Eibar Eskubaloia 27-30 irabazi zuen Usurbilen Federazio txapelketaren barruan eta kadete mailakoak berdinketarekin ekin zion Euskal Ligako 2. faseari Zarazpe Pulpori Zumaian egin-dako bisitan.



Somos Eibar Eskubaloia talde nagusiak aurkari sendoagoak izango ditu hurrengo denboraldian.

Mikel Recio waterpolista Espainiako selekzioarekin

SORALUZETIK JOKALARIA URBATEKO LEHENENGOA DA ORAIN DELA URTE ETA ERDI Urbat-Urkoronik proiektu berria martxan jarri zenetik Espainiako selekzioa heltzen. Boya postuan jokatu du eta aurretik ere izan da 16 urtetik azpiko selekzioarekin, orain arte Euskadikoarekin; azken selekzio horren bigarren goleatzailea izan zen estatuko finaleran. Infantil mailako taldeak, bestalde, 15-3 irabazi zion Donostiako Fortunari zapatuan Orbea kiroldegian jokatuak partiduan.



Bengoetxea eta Amantegi, irabazitako trofeoekin.

Beste txapel bat Bengoetxea pilotariarentzat

ORAINGOAN LAUDIOKO TORNEOAREN XVI. EDIZIOA BEREGANATU DU ATZELARI EIBARTARRAK, aurreko koa-droetan Amantegi abadiñotarra lagun izanda. Gorritz jantzitako bikotea erraz nagusitu zen fina-lean (22-13), 450 pilotakaren ondoren nagusitasuna eraku-

tsiz, batez ere ikusitako helduta-sunari esker. Hasieratik hartu zuen aurrea bikote irabazleak eta, 8tik 12ra arteko tantoetan izandako borroka latza amaituta, hortik aurrerakoa euren alde-koa izan zen. Amantegi aurrela-ria izendatu zuten finaleko one-na "benetako pilota partiduan".



Mendi irteera eta sagardotegira bisita

AURREKO ZAPATUAN EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO MENDIZALEEK RED COMÉTE IBILALDIA egin zuten. Guztira 24 km.-ko ibilbidean, Bidasoaren inguruan Munduko II. Gerrako Europako iheslarien bidetik. Hotz egin arren, eguraldia eta umorea lagun izan zuten egun guztian eta, behin ibilaldia amaituta, denak Astigarragan elkartu ziren baso-erdi batzuk hartzeko eta, ondoren, Petritegi sagardotegira joan ziren afaltzera.

Ipuruako gimnastak onenak izan ziren Arrasaten

GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO A TXAPELKETAREN LEHENENGO KANPORAKETA JOKATU zen zapatuan Arrasaten eta Ipuruako laukotea podiumaren goiko mailara igo zen, uztailekin eta mazekin egindako lanaren ondorioz. Taldekako emaitz bikain horren ondoren, Hernanin izango dute hurrengo erronka martxoaren 25ean. Aurretik, baina, hurrengo zapatuan (hilaren 25ean) infantil, alebin eta benjamin mailetako B txapelketa jokatu da Ipuruan.

Eibar-Arandina lau onenen artean jarraitzeko asmoz

AUKERAK SORTU ARREN, EZ ZUEN GAUZATZEN JAKIN ETA EIBARREK BI PUNTU garrantzitsu laga zituen Lemoan, multzoko azken sailkatuarekin bina berdindu eta gero. Domeka honetan Arandina hartuko du Ipuruan (17.00etan) Manixen taldeak eta hobe izango du neurketa irabaztea lau onenen artean duen postuari heltzeko. Del Olmo azken

fitxaketak maila ona erakutsi zuen Lemoan eta Arruabarrena aurrelaria ere taldekoa izango da, partidu bateko zigorra bete ondoren.

Bestalde, 3. mailako Garitanoren taldeak Zamudio hartuko du Unben, beheko postuetatik ihes egiteko aprobetxatu dezakeen norgehigokan. Azken jardunaldian husna berdindu zuen Eibar B-k Leioan.



Arandina ez da aurkari erraza izango: Alavés gaintu zuen azken domekan. / IVAN SAETA

Pilota profesionala domekan bueltatuko da Astelenara

EGITARAU BIKAINA ESKAINIKO DU, GAINERA, AZKEN SEI ASTEBURUETAN KATEDRALETIK URRUN egon eta gero.

Oraingoan Asegarceko bikote bi izango dira jaialdiko partidu nagusiaren protagonista: Pablo Berasaluze eta Albisu alde batetik eta Oinatz Bengoetxea eta Apraiz 22ra zein lehenago heldu ibiliko dira. Horien aurretik lehiatuko dutenak ere maila handiko pilotariak dira: González eta Cecilio Idoate eta Peñagarikanoren aurka. Jaialdia amaitzeko, Olazabal-Larrinaga eta Lemuno-Aretxabaleta bikoteek neurtuko dituzte indarrak.



Herriko judokak Calatayuden eta Lezon

ZAPATUAN ERRONKA BIKOITZARI EGIN ZIOTEN AURRE KALAMUAKO JUDOKEK: Calatayudeko jiu-jitsuko I. torneoan, Euskal Herriko lau talderekin batera, Galizia, Madril, Katalunia eta Aragoiko ordezkariak izan ziren parte hartzen. Kalamuakoen uzta honakoa izan zen: urrezko lau domina, zilarrezko bat eta brontzezko beste lau. Bestalde, Lezon jokaturako kadete mailako Euskadiko txapelketan, Nekane Muguruza eta Itxiar Hernández 2. postuan sailkatu ziren 63 kilotik beherakoenen eta 70etik beherakoen mailetan, hurrenez hurren. Biak izango dira Madrilen jokatu den nazioartekoan Euskadi ordezkatzeko.



Deporreko xake taldea hasi da denboraldia zuzentzen

GIPUZKOAKO TALDEKAKO TXAPELKETAREN 5. JARDUNALDIAN, KLUB DEPORTIBOKO lehen taldea 3-1 nagusitu zitzaion Donostiako Gros xake taldari. Jon Aranak, Alex Aranzabalek eta Julen Garrok euren partiduak irabazi

zituzten, azken honek gainera Iñigo Martín FIDE Maisua garaituz. Denboraldi hasiera makalari buelta ematen dihardu Eibarko taldea eta bihar Arrasaten izango du erronka berria: motibatuta eta gogo biziz izango dira han Deporrekoak.


GAZTEMENUA DENA **18 €** BARNE
barixaku gauetan txotxa eta garagardoa barne

Entsalada mixtoa edo Bakailao tortilla edo Bakailao konfitatua
.....
Txerri-saiheskia parrillan edo Oilasko errea parrillan edo Okela gisatua
(Hirurak patata goarnizioarekin)
.....
Gaztaia, intxaurrek eta membrilloa
Ogia, ura, ardoa, garagardoa eta sagardoa

Otaola etorbidea, 3 - atzea
(Hiper Eroskiren alboan)

Iruki
Sagardotegia

Tel. 943 20 68 44
irukieibar@hotmail.com
www.irukieibar.com



Prebentzioa istripuak gutxitzeko eta gaixotasunak agertzea sahisteko gako nagusia delako, DYAK 'Osasuna eta Istripuen Prebentzioaren astea' antolatu du Eibarren aste honetan. Egutero ikastaro bat egin da eta bihar moto istripu baten simulazioa egingo da 11.00etatik 12.00etara.

ASIER MORENO (DYA):
"Borondate onetik aparte, gutxieneko gauza batzuk behar dira"



- 'Osasun eta istripuen astea' jarriko duzue martxan Eibarren. Zein da ekimenaren helburua?

Aste hau antolatzearen helburu ahalik eta pertsona kopuru handienari gaixotasunak eta istripuak saihesteko bideak irakastea da, eta ekidin ezin izan diren kasuetan, hau da, istripu bat edo gaixotasun bat sortzen direnean, horien aurrean jokatzen diren oinarrizko jardunbideak ezagutaraztea. 39 urtez larrialdiez arduratzeak zera erakutsi digu: prebentzioa dela gako nagusia istripuak gutxitzeko eta gaixotasunak saihesteko.

- Aurretik egin duzue gauza bera beste herriren batean? Horrela bada, nolako harrera izan du?

Harrera ona izaten ari diren jardunaldi hauetara, istripuen eta gaixotasunen aurreko jokatzen diren edo norbere osasunaren inguruko jakinmina zein kezka dituzten pertsonak etortzen dira. Prebentzioaz gain, norbere burua osasuntsuago zaintzeko jarraibideak ikasten dituzte, era desberdinetako istripu eta gaixotasunen aurrean nola erantzun eta zein sorospen eman azaltzen da.

- Herritarrek, normalean, prest daude istripuei aurre egiteko?

Oro har jendeak borondate ona agertzen du istripu baten aurrean eta laguntzeko asmoa du. Baina borondate onaz gain gutxieneko gauza batzuk behar

dira. Kaltetua izan den pertsonaren egoera okertuko duen ezer ez dela egin behar da argi izan behar den lehendabiziko gauza. Baina lehenengo laguntza kualifikatua heldu arte gauza asko egin daiteke: lekua babestu beste inor zauritua gerta ez dadin (kotxeko triangeluak jarri, nork bere segurtasun-txalekoa jantzi,...); 112 telefonora hots egite-rakoan informazio zuzena emateko, aurretik datuak bildu behar dira: zer pasa den, zenbat diren zaurituak, zein den leku zehatza, zein egoeratan dauden, ea. Behin aurreko pausoak emanda, unean uneko lehen sorospenak eman ditzakegu.

- Prebentzioari buruz jardungo duzue ikastaroetan, baina zein puntutara arte prebenitu daiteke istripu bat?

Istripu batean alderdi askok eragiten dute, eta egia da alderdi horietako batzuk ezin ditugula kontrolatu. Baina arriskuak ahalik eta gutxi izan daitezten, gure eskuetan dagoena egin behar dugu: kotxean goazela, adibidez, abiadura egokia eraman, gidatzeko gaitasuna gutxitzen duen substantziarik ez kontsumitu, haurrak kotxean doazenean ondo finkatuta eraman, segurtasun distantzia zaindu, mugikorra edo GPS-arekin arretarik ez galdu, ea. Beraz, gure esku dauden alderdiak ezagutu behar ditugu, horiek praktikan jarrita istripua izateko arriskua gutxitzen delako.

Elkarrizketa osoa: www.etakitto.com



Pozarren irten ziren barixakuko emanaldira joandakoak. / LEIRE ITURBE

Latinamerikako musika Coliseoan

Barixaku iluntzean Latinamerikako doinuak protagonista izan ziren Coliseo antzokian, Ana Caballero Musika Eskolako gitarra irakasleak zuzendutako jaialdian. Miren Basterretxeak, Ainhoa Larraurik, Nathali-Sebastian bikoteak, Cristina Rodriguezek, Miren Truebak, Marta Zubiaurrek, Mikel Urkolak eta Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako Mariatxiak jardun zuten kantuan eta emanaldira joandakoak pozarren irten ziren.

Aratosteetako marrazki lehiaketa

Eguazten arratsaldean Ibkurutzeko Kili-Kili tabernan jaso zizuten sariak Arragueta-Errebal-Estaziño-San Agustin inguruko dendari eta tabernariak Aratosten inguruan antolatutako marrazki lehiaketako irabazleek: adinaren arabera maila bi bereizi dituzte eta nagusien artean Naroa Ka-reaga (11 urte) izan da irabazlea; 8 urteko Miren Elorza, berriz, txikienean arteko txapelduna izan da. Ume mordoak hartu du parte lehiaketan eta, azkenean, txikienean artean finalista izan diren Paula, Peio, Libe, Iker, Eiharne, Sare, Irene, Laura eta Ane ere saritu dituzte, bakoitzari opari bana emanda. Zorionak!



Yoga ikastaroa martxa betean

Aurreko asteko martitzenen hasi zen ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako yoga ikastaroa, Maite Ugarteburu irakaslearen eskutik. Izen-emateko orduan jendearen aldetik izandako erantzunak aurreikusita zegoena gainditu eta, hori ikusita, talde bi osatu dira: taldeetako batek martitzen arratsaldetan dauzka klaseak eta besteak, berriz, eguenean, biek 18.30etatik aurrera. Otsailen eta martxoan emango dituzten klaseetan erlajaziorako teknikak eta bestelakoak lantzeko aukera izango dute ikasleek.

Hiperasia taldekako erakusketa Portalean ikusgai

BARIXAKUAN INAUGURATU ZUTEN PORTALEAN "HIPE-RASIA" IZENBURUKO ERAKUSKETA. Martxoaren 4ra arte ikusgai egongo da eta 21 artistaren orotariko artelanak batu dituzte erakusketa aretoan. Fernando de Vicente, Pello Alberdi, Marina Barrena, José Antonio Azpilicueta, Vicente Iriondo, Alberto Ibañez, Aitor Etxeberria,



José Félix Igartua, J.R. Elorza, Baroja Collet, Marino Plaza, Mikel Campo, Bárbara Stammel, Keixeta, Aitor Sarasketa, Ricardo Azkarkorta, Bingen de Pedro, Iñigo Arregi, Juan Luis Goi-

kolea, Asier Laspiur eta José Arana dira euren lanak ikusgai ipini dituztenak eta erakusketa ohiko ordutegian, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara ikusteko aukera dago.

Antzerki Jardunaldiak abiatzeko prest

AURREKO ASTEBURUAN ANTZERKI JARDUNALDIETARAKO SARREREN AURREALMENTAK jarraipena izango du asteburu honetan ere, zapatuan eta domekan 19.00etatik 14.00etara Coliseoan. Ikuskizunak, berriz, gaur bertan hasiko dira, 17.00etatik aurrera Untzagan eta Toribio Etxebarrian egingo den Giza Irudien X. erakustaldiarekin. Irekiera ofiziala, berriz, datorren eguaztenean egingo du Juan Carlos Rubio aktoreak, 19.00etan Coliseoan hasiko den hitzaldiarekin. Ekitaldi horretan banatuko dituzte, baita ere, aurtengo Narruzko Zezen antzez gidoi eta artikulu lehiaketako sariak. Eta antzezlanen funtzioetan buru-belarri sartu aurretik, Jardunaldien egitarauak jasotzen duen "Melancholia" (Zuz: Lars von Trier) filma ikusteko aukera izango da Hezkuntza Esparruan, 17.30etan eta 21.00etan.



laburrak

ARATOSTEAK KARRIKAN

Karrika taberna "Er burladero" dihurtuko da Aratosteak direla eta: gaur gauerditik aurrera "Streetpunk gaua" ospatuko da Barrutia eta Iñigoren eskutik eta zapatu gauean, berriz, Aratoste jaia, Alex. H ("Spanish bizarre"), Ana Mari ("Mobida madrileña hits") eta Iñihil ("Eztiloh libreh").

BERTSO ASTEA

Martxoan Bertso Astea ospatuko dute Kultun: 8an bertso saioa egingo da Amaia Agirre eta Julio Soto bertsolariekin eta 10ean bazkaria Maialen Lujanbio eta Jon Maiarekin (bazkarirako txartelak Kultun salgai).



Pantxika eta Txinparta guraso berbalagunekin

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK ANTOLATZEN DUEN GURASOAK BERBETAN mintzapraktika egitasmoaren barruan, Pantxika eta Txinparta pailazoan ikuskizuna izan zen joan zen domekan Portalean. Barrerik ez zen falta izan eta ederto pasa zuten areto nagusira joan ziren gurasoek eta umeek. Astean behin euskara praktikatzeko elkarteaz gainera, ikasturtean zehar hainbat ekimen eskaintzen dizkie ...eta kitto!-k guraso berbalagunei. Domekako pailazoan ikuskizunaz gainera, datorren martxoaren 23an euskal kantu eta jolas-tailerrean parte hartzeko aukera izango dute eta ikasturte amaieran, iaz egin zuten bezala, Arraten egingo dute egun pasa. Egitasmoa euskeraz berba egiteko gaitasuna hobetu nahi duten Haur Hezkuntzako umeen gurasoek zuzenduta dago, eta parte hartu nahi duenak ikastetxean bertan dauka izena emateko aukera, edo bestela ...eta kitto!-ra deitu dezake (943200918).

"Aulki jokoan" Uxue Alberdirekin

AURREKO BARIXAKUAN AEK EUSKALTEGIAN UXUE ALBERDI BISITAN izan zuten, irakaskuntzan dihardutenentzat euskara maila hobetzen laguntzeko helburuarekin Iralek antolatutako R-300 ikastarokoekin. Ikasleek idazle honen "aulki joko" eleberria irakurri dute, literatura saioan. Uxueren aurkezpen labur bat egin ondoren, bere autorretratua irakurri zuen idazleak. Euskaltegikoek azaldutakoari jarraituz, "horrez gain, argi adierazi zuen fikzioa eta errealtatearen arteko harremana literaturan: hau da, nahiz eta fikzioa erabili, sinesgarritasuna da xedea, eta hori oso garbi islatzen da eleberrian. Idazle ona izateaz gain, primerako hizlaria dela ere erakutsi zuen.



Ikasleek gustora entzun zituzten Uxuek kontatutako pasarte eta istorioak. Pasarte horiekin, heriotzak sortu dizkion kezak azaldu eta, bide batez, Gerra Zibila emakumeen ikuspegitik erakusten du".

Elurra, euria, haizea eta hotza ditugun aste hauetan, kolore biziak eta beroa datoz gurera hurrengo egunotan. Aratosteak ospatzeko sasoia heldu da. Koko-jantziak, dantzak, festa eta algara, azken aldiko kolore grisa albo batera laga eta egun zoroak pasatzeko.

ARATOSTEAK: Negua mozorrotzeko adina festa

Koko-jantziei azken ukituak emanda, herria hasi da Aratosteak ospatzen. Zehazki esanda, orain dela asteburu bi eman zitzaion hasiera koko-dantza eta koko-eskearekin. Kezka Dantza Taldekoak, Italiako Rocca Grimaldako La Lachera inauterien laguntzarekin, Arrate-bailleko base-rietan zehar ibili ziren koko-dantzari eta koko-marruekin.

Aste biko tartearen ostean, atzo umeak izan ziren protagonista Eguen Zuri egunean. Euren koko-jantziekin joan ziren eskolera, eta batzuk han jaia egin bazuten, beste batzuk kalejiran irten ziren herriko kaleetan zehar. Hotzari aurre eginez, dantza eta festa giroan ederki pasa zuten umeek. Gero, gainera, Liskerrek dantzaldia eskaini zuten Untzagan eta Astixaren eskutik taillerak egon ziren eurentzat.

Kaldereroak eta Baron Rojo

Hungariakoak ez badira ere, **Kalderero-**



Koko-jantzi lehiaketa egin zen aurreko zapatuan El Corte Inglés-ean. / LEIRE ITURBE

en kalejira egingo da gaur 20.00etatik aurrera Urkizun hasita Untzagaraino. Euren abesti eta dantzen ostean, Eibar Eskubaloi Taldeak Aratosteetako **pregoia** egingo du 21.00etan Untzagan ...eta kitto! eta Kezkaren ekimenez. Gauean burua eta gorputzeko gainontzeko atalak mugitzeko aukera egongo da **Baron Rojo** taldearen kontzertuan 23.00etatik aurrera, baina aurretik indarrak hartu beharko dira **herri-afarian** Untzagako karpan 21.30etan.

Lehiaketa eta dantzaldiak

Batek baino gehiagok Baron Rojoren musika heavyaren doinuak sentituko ditu oraindik belarrian bihar goizean, baina 12.00etatik aurrera egongo da berriz jai-giroan murgiltzeko aukera Untzagako karpan Lambretta Klubaren eskutik.

Umeak, gazteak, helduak eta aiton-amonak mozorrotzen dira Aratosteetan, baina ez eurak bakarrik, **herriko tabernek** ere euren koko-jantzia izaten dute-eta. Bakoitza bere modura, urte osoan zehar duten itxura aldatu eta beste nortasun bat hartzen dute egun hauetan. Horrela, lehiaketa antolatzen da tabernen artean politena zein den aukeratzeko eta bihar 13.30etan emango da saria kartel lehiaketarekin batera.

Galiziako Etxeak ere Aratosten festan parte-hartu nahi izan du eta horretarako **koko-jantzi lehiaketa** egingo du bihar. Parte-hartuko duten ume guztiek opari



Barón Rojo-k gaur gauean joko du Untzagan.

bana jasoko badute ere, koko-jantzi originalenak eta ondoen irudikatutako sari berezia jasoko du. Lehiaketa 17.00etan hasiko da Galiziako Etxean.

Bazkalostean, digestioa egin eta gero, **umeendako diskoteka** egongo da Untzagan **DJ Arnoren** eskutik 17.00etatik aurrera, eta 18.00etan **kalejira** egingo da **Ustekabe** fanfarrearekin. Baina ez da arratsaldeko kalejira bakarria izango, **koko-jantzitako koادريلاك** Urkizutik irtengo baitira 20.00etan. Egunari amaiera emateko (ekitaldiei dago kienez behintzat), **Luhartza** taldearekin **dantzaldia** egongo da Untzagan 23.00etatik 03.00etara.

Playbacka ...eta kitto!-rekin

Domekan ez da Untzogatik haratago joan beharko musika izarren distiraz gozatzeko, izan ere, ...eta kitto! Euskara Elkarrekin antolatuta umeendako **playback lehiaketa** egingo da 17.00etatik aurrera. Ondoren, oraindik festarako gogoia badago, **umeendako diskoteka** egongo da DJ Arnorekin.

Astelehenean atsedena hartzeko aukera egongo da martitzenean Aratosteei behar den moduko agurra emateko. Izan ere, martitzenean 17.00etatik 18.30etara **umeendako jolasak** egingo dira Untzagan, eta 18.00-etan **Sardinaren entierro txikia** trikitilariekin lagunduta. Baina ez dadila tristura herriaz jabetu! Hortan saiatuko da behintzat DJ Arno 18.30etatik aurrera Untzagako karpako umeendako diskotekan.



JUAN OSÉS BIENZOBAS

I. urteurrena (2011-II-17)

“Orain dela urtebete joan bazinen ere, gure bihotzetan jarraitzen duzu”

Zure emazte eta seme-alabak

BERE ALDEKO MEZA otsailaren 19an (domekan) egingo da, eguerdiko 12.00etan, San Andres parrokian.




laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, AINHOA, haraiñegun hamahiru urte bete zenduazena-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, ANDONI, bixar urte bi betekozuz-eta. Muxu haundi bat ama Vanessa eta aitta Mikelen partez.




Zorionak, MALEN Beobide Lapeyra, bixar gure printzesak sei urte egingo ditutu-eta. Muxu haundi bat famelixakuen eta lagunen partez.




Zorionak, IRATI Arakistain Mendizabal, gaur bederatzia urte betekozuz-eta. Famelixa osuaren partez.




Zorionak, OSOITZ Errasti, bixar urte bi egingo betekozuz-eta. Askoi maitte zaittuen Julene, amatxo eta aita txoren partez.




Zorionak, IRAITZ, astelehenian urtiak egingo betekozuz-eta. Muxu haundi bat zure aitta, ama, Ekain eta Rebecaren partez.




Zorionak, MARKEL, atzo bi urte bete zenduazelako. Ze haundixa zaran! Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ANE eta LIBE, lau urte bete betekozuz-eta. Segi beti bezain zoriontsu. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, amama MARIANGELES, domekan urtiak bete zenduazena-eta. Patxo potolo bat NAHIAren partez.



Zorionak, DANEL, datorren astelehenian urtebete egingo betekozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MALEN, gaur zazpi urte egingo betekozuzelako. Muxu bat etxekuen partez.

JAOTAKOAK

- Mohammed Azzi. 2012-II-3.
- June Bravo Iriondo. 2012-II-5.
- Arizt Moro Torres. 2012-II-6.
- Ismael Anas Bouanani. 2012-II-9.

HILDAKOAK

- Felix Rico Aranzabal. 82 urte. 2012-II-10.
- Manuel Zalabardo Gordo. 73 urte. 2012-II-11.
- Alberto González De los Ríos. 81 urte. 2012-II-12.
- Juan Alvarez Alvarez. 100 urte. 2012-II-13.


zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

17an: 22.30
18an: 19.45, 22.30
19an: 20.00
20an: 20.30

"La chispa de la vida"

Zuzendaria: Alex de la Iglesia




(1 ARETOAN)

18an: 17.00
19an: 17.00

"Aita Zonbia Naiz"

Zuzendaria: Ricardo Ramón



(2 ARETOAN)

17an: 22.30
18an: 16.00, 19.15, 22.30
19an: 16.00, 20.00
13an: 20.30

"Millenium: Los hombres..."

Zuzendaria: David Fincher



(ANTZOKIAN)

17an: 22.30
18an: 19.15, 22.30
19an: 20.00
20an: 20.30

"War horse"

Zuzendaria: Steven Spielberg



(ANTZOKIAN)
18an: 17.00
19an: 17.00

"Los Muppets"

Zuzendaria: James Bobin

horoskopoa

ARIES

Gauza ez da mundu guztia zure aurka dagoela, baizik eta zu zaudela guztien kontra. Aldatu jarrera, egoera aldatu nahi baduzu behintzat.

TAURUS

Kanpotik datozen berriak ez dira onenak (langabezia, grebak...), baina zu beste mundu batean bizi zarela ematen du. Zorionekoa zu!

GEMINI

Urtero bezala, Aratosteak gainean dituzu. Zerbait inprobisatu beharko duzu: naturaltasun puntuak orijinala bihurtuko du zure koko-jantzia.

CANCER

Hainbat gauza dituzu ospatzeko eta asteburua egokia izan daiteke horretarako. Ez laga pasatzen, gero beranduegi izan daiteke-eta.

LEO

Zure begiradak argi erakusten du ez zabiltzala nahi bezain ondo eta ingurukoek antzemango dute hori. Euren laguntza berezia izango da.

VIRGO

Gau zoragarria pasako duzu bihar. Aspaldiko partez lagunekin bildu eta juerga polita egingo duzue Aratosteak ospatzeko. Ondo pasa!

LIBRA

Erronka handia izango duzu aurrean aste osoan. Ez da erraza izango hura gainditzea, baina barruan duzun guztia emango duzu lortzeko.

SCORPIUS

Hotza, haizea, elurra... denak bazu dira zure osasunaren kontra. Pare bat egun irten barik egonda, gerra emateko prest egongo zara.

SAGITTARIUS

Nola ez duzu nahi kalean hotza pasatzea, ia erropa barik irtetzen bazara? Ez duzu neguko erroparik? Eztarriak berotasuna eskertuko dizu.

CAPRICORNIUS

Bizitza ez da lehiaketa: ez zaitez estutu beste horrek aurea hartu badizu kontu horretan. Gauza da pozik egotea eta dena gustora egitea.

AQUARIUS

Asteburu lasaia duzu aurretik. Lasaiegia. Aspergarria izango dela ere esan daiteke. Ea zer asmatzen duzun denbora hori pasatzeko.

PISCIS

Etorkizuneari gehiegi pentsatu ez gero, ez duzu orainaldia behar den bezala aprobetxatuko. Horri buruz gogoeta egingo duzu asteburuan.

Barixakua 17

ANTZERKIA

17.00.- Giza Irudien X. Erakustaldia. Untzagan eta Toribio Etxebarrian.

LIBURU AURKEZPENA

19.00.- "AHT-ren aurkako mugimendua eta errepresioa" liburuaren aurkezpena. Afari-merienda eta Meren kantautorearen kontzertua. Gaztetxean.

ARATOSTE BARIXAKUA

20.00.- Kaldereroen kalejira, Urkizutik Untzagarainoko.

20.30.- Untzagan, Kaldereroen abestiak eta dantzak.

21.00.- Aratosteetako pregoia.

21.30.- Herri-afaria, Untzagako karpan.

23.00.- Baron Rojo-ren kontzertua (Untzagan).

Zapatua 18

PREBENTZIO ASTEA

11.00.- Moto istripuaren simulazioa. DYArene egoitza inguruan (Pagaegi, 5).

ARATOSTE ZAPATUA

12.00.- Aratosteetako karpan animazioa, Lambretta Klubarekin.

13.30.- Aratosteetako taberna eta kartel lehiaketetako irabazleei sariak banatzea.

17.00.- Umeendako diskoteka, Untzagako karpan, DJ Arnorekin.

12.00.- Koko-jantzi lehiaketa, Galiziako Etxean.

18.00.- Untzagan hasita, kalejira Ustekabearekin.

20.00.- Urkizutik hasita, koko-jantzitako koadrilen kalejira.

23.00/03.00.-

Dantzaldia, Luhartz taldearekin.

GAZTELEKUA

17.00.- Lipdub-a. Indianokua gaztelekuan.

Domeka 19

ARATOSTE DOMEKA

11.00.- Usartza Txistulari Bandaren kalejira.

17.00.- Untzagan, umeendako playback lehiaketa, ...eta kitto!-k antolatuta.

18.30.- Umeendako diskoteka, Untzagako karpan, DJ Arnorekin.

GAZTELEKUA

17.00.- Lipdub-a. Indianokua gaztelekuan.

Astlehena 20

MAHAI-INGURUA

19.30.- "Ondorio operatiboak egungo globalizazio egoeran", José M^a Setién, Pako Garmendia eta Juan Manuel Sinderen eskutik. Portalean.

Martitzena 21

IKASTEN

10.00.- "Autopsiaren prozedura", Rafael Alcarazen eskutik. Armeria Eskolan.

ARATOSTE MARTITZENA

17.00.- Umeendako jolasak, Untzagan, Astixarekin.

18.30.- Sardinaren entiero txikia, trikitilariak lagunduta.

18.30.- Umeendako diskoteka, Untzagako karpan, DJ Arnorekin.

Eguaztena 22

TAILERRA

10.00.- "Zure marka eraiki; komunikazio teknikak" (3 ordu). Portalean.

IKASTEN

10.05.- Ibilaldia: Elgoibarko Sallobente bailarako baserri inguruetan ibilaldia. Ardantzako geltokian (Estaziotik 10.13etan).

PREBENTZIO ASTEA

19.00.- Etxeko istripuen prebentzioari buruzko hitzaldia, DYArene eskutik. DYA-n (Pagaegi, 5).

EDUKIONTZIAK

11.00/13.30 eta 16.30/20.00.- Biohondakinak jasotzeko edukiontzia materialaren erabileraren inguruko azalpenak. Portalean.

ANTZERKIA

19.00.- Irekiera-hitzaldia: Juan Carlos Rubioren eskutik. Narruzko Zeren Lehiaketako irabazleei saria banatzea. Coliseoan.

Eguena 23

IKASTEN

10.00.- "Grafologia forensea", Goyo Gravalosen eskutik. Armeria Eskolan.

EDUKIONTZIAK

11.00/13.30 eta 16.30/20.00.- Biohondakinak jasotzeko edukiontzia materialaren erabileraren inguruko azalpenak. Portalean.

ZINEA

17.30 eta 21.00.- "Melanconia". Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.


SUDOKUA

	9					1	
4				1			
		7		4	5	9	
	8	1	6			7	
7	5					8	4
	4				8	1	6
	3		8	9		5	
			5				7
2							3

DENBORAPASAK

5	2	3	5	9	7	4	1	6
4	7	8	1	2	6	9	5	3
1	6	9	4	5	3	2	7	8
2	4	6	7	1	9	8	3	5
9	1	5	3	4	8	6	2	7
8	3	7	2	6	5	1	9	4
7	5	4	9	8	1	3	6	2
6	9	2	5	3	4	7	8	1
3	8	1	6	7	2	5	4	9

AURREKOAREN EMATZA



erakusketak

– Otsailaren 12ra arte

MIGUEL QUIRÓS en argazki erakusketa.

El Ambigú tabernan.

MARIAN ARETXABALA ren argazki erakusketa.

Portalea tabernan.

– Martxoaren 2ra arte

ALEX JIMÉNEZ en *“Itsasoaren istorioak”*.

Untzagako Jubilatut Etxean.

– Martxoaren 4ra arte

“HIPERASIA”. Portalean.

ikastaroak

– **Ur-sorospen eta birziklatze ikastaroa.**

Otsailaren 25etik aurrera, Ipurua kiroldegian.

Izen-ematea eta informazioa: Eibar-Ermuako Gurutze Gorrian, 943176248 edo 659464241 telefonoetan.

– **Sukaldaritza energetikoa eta makrobiotika.**

Martxoaren 3 eta 4an, 10.00etatik 12.30etara eta *martxoaren 6, 13, 20 eta 27an*, 19.00etatik 21.30etara. Izen-ematea eta informazioa:

Azataporrua elkartearen (Juan Gisasola kalean), eguaztenetan 17.00etatik 20.00etara.

– **Lehen Sorospen eta Sorosle ikastaroa.**

Martxoaren 3tik 24ra, zapatuetan, 09.00etatik 13.30etara eta 15.30etatik 19.30etara, DYAko

Eibarko ordezkarietan (Pagaegi, 5 behean).

Izen-ematea eta informazioa: 943464622 telefonoan edo www.dyagipuzkoa.com helbidean.

lehiaketak

– **Berba Lehiaketa.**

Gaia: Eibar herria egokien definitzen duen berba. Informazioa eta lanak entregatzea: **Otsailaren 20ra arte**, Udal Euskaltegian, AEK-n edo www.eibarko-euskara.com webgunean.

– **Industria-argazkilaritza.**

Gaiak: Industria-argazkilaritza eta Armeria Eskolako Mendeurrena. Informazioa eta lanak aurkeztea: **Otsailaren 24ra arte**, Armeria Eskolan edo aaa@armeriaeskola.com helbidean.

– **Portada lehiaketa.**

XXIX. Día das Letras Galegas egitaraurako azala aukeratzeko lehiaketa. Informazioa eta lanak aurkeztea: **Otsailaren 28ra arte**, As Burgas Galiziako Etxean (Urkizu, 11 behean).

– **Eguen Zuri Argazki Lehiaketa.**

Lanak entregatzea eta informazioa: **Martxoaren 20ra arte**, Arrate Kultur Elkartearen.

farmaziak

17, barixakua

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

18, zapatua

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

19, domeka

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

20, astelehena

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

21, martitzena

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

GAUEZ **Ibarrodo** (Zeharkalea, 2)

22, eguaztena

EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

23, eguena

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

24, barixakua

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

telefono jakingarriak

SOS delak112

Pegora010

Udaletxea943 70 84 00

Portalea943 70 84 39

Udaltzaingoa.....943 20 15 25

Mankomunitatea943 70 07 99

Debegesa.....943 82 01 10

KIUB943 20 38 43

Epaitegia943 03 34 00

Iberdrola901 20 20 20

Naturgas902 12 34 56

DYA Larrialdiak.943 46 46 22

Gurutze Gorria..943 22 22 22

Mendaro osp.....943 03 28 00

Anbulategia.....943 03 25 00

Torrekuia.....943 03 26 50

Errepideak.....902 11 20 88

Ertzaintza943 53 17 00

Eusko Tren902 54 32 10

Pesa902 10 12 10

Taxiak.....943 20 30 71

.....943 20 13 25

Alkohol.Anon. ..629 14 18 74

Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 18.30etara orduro, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara orduro. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara orduro eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara orduro, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara orduro, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Amañako plazoletan. 2 gela, egongela, sukalde, komuna eta ganbara. Dena kanpora begira. 125.000 euro. Tel. 685-728995.

– Eibarko Txikito kalean pisua salgai. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Irogailua. 150.000 euro. Tel. 672-622774.

1.2. Errentan

– Esteponan (Málaga) pisua alokagai, kaia eta hondartzaren ondoan. 3 logela, egongela, komun bi eta terraza (itsasora). Dena kanpora eta jantzita, elektrogailu eta ohe-arroparekin. Tel. 945-621015 eta 645-728317.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 618-734000.

1.3. Konpartitzeko

– Pisua konpartitzeko emakumea behar da. Deitu 17.00etatik 19.00etara. Tel. 681-081763.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Lokala salgai Ubitxa behean. Tel. 617-688311. Maria.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da sukalde-laguntzaile moduan, etxeak garbitzeko eta umeak zaintzeko. Tel. 674-691381.

– Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko, sukalde-laguntzaile edo kamarera jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 692-332871 eta 943-257815.

– Mutil arduratsua eskaintzen da kamarero eta zaintzaile jarduteko. Esperientzia. Tel. 692-332871 eta 943-257815.

– Neska eskaintzen da kamarera jarduteko, odontologia-laguntzaile moduan eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 638-002368. Kely.

– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 675-377021 eta 657-395980.

– Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukalde-laguntzaile moduan eta kamarero jarduteko. Tel. 615-720384 eta 943-257815.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 617-571210.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 650-152866.

– Jostuna eskaintzen da jostungintzan lan egiteko, igeltsero eta elektrizista moduan eta kamarero jarduteko. Esperientzia. Tel. 689-286167.

– Batxilergoko neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 622-824468.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka, jornada erdiz eta baita gauz ere. Tel. 618-052967.

– Neska euskalduna eskaintzen da ileapaintzaile moduan (esperientzia) eta beste edozein lanetarako. Tel. 622-383696.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 695-804895.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-423493.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 677-689227. Aitziber.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 666-986611.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 674-027961.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-873547. Socorro.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 659-080186.

– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 633-150376.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-742787. Yesenia.

– Mutila eskaintzen da igeltsero, enkofratzaile edo pintore jarduteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 622-370726.

– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo kamarera jarduteko, etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-236564.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Externa. Tel. 638-338816.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 689-273664.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta kamarera edo sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 608-376387.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Egun osorako edo orduka. Tel. 634-007292.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 608-474923.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 648-603029.

4.2. Langile bila

– Emakumea behar da nagusia zaintzeko. Orduka. Deitu 18.30etatik aurrera. Tel. 696-252210.

– Kamarera/o eta sukaldaria behar dira Arrateko jatetxe batean. Nahitaezkoa esperientzia. Tel. 656-752658.

– Sukaldaria behar da taberna baterako. Tel. 629-354370.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Marrazketa titulatuak pintura eta marrazketa eskolak ematen ditu. Tel. 666-449559.

– Batxilergoko neska batek klase partikularrak ematen ditu. Tel. 622-824468.

– Ordenagailua erabiltzen irakasten da. Word, Accel, Excel, web orriak egiten ikasi etabar. Merke. Tel. 679-740061.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Ohe artikulatu bi (0'80) salgai. Gutxi erabilitakoak eta egoera onean. Izarak oparitzen dira. Tel. 615-781238.

– Bikiendako kotxe-silla salgai, kapazo bat eta bi aulkixorekin. Ia erabili gabe. 400 euro. Tel. 629-326067.

– Babyjorn umeendako motxila salgai. Berria. 60 euro. Tel. 600-466573.

– Egurrezko trona (silla eta mahaia bihurtzeko gai), autoarendako segurtasun-aulkia (9tik 25 kilora), bi daia-sehaska eta bizikleta (3 urte) salgai. Merke. Tel. 617-256466.

6.4. Bestelakoak

– Gorbeia arrazako ardi-txakurkumeak oparitzen ditut (ar eta eme bina). Tel. 943-203205.

– Bikiendako aulki euritakoa oparitzen da. Tel. 669-208763.

ARATOSTIETAN BE TABERNETAN DOZU...

GURIDI



piraten
erreinua

VIVALDI



umeen
paradisua

AGUIÑASPI



barraketan
duzu saria


Armeria Eskolak
100 urte



TAS-TAS

SLOW

BURLESQUE



"LILURA GAUK"

Ego-Gain, 10 943-256016

TXOKO

etorri gure
baserrira



... **GIRORIK**
ONENA!!!

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

m **bista eder**
clínica dental - hartz klinika

Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hartz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75